IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

GIZARTE ETA KULTUR ANIMAZIORAKO

PROGRAMAK-1

2007-2008 IKASTURTEA

tITULAZIOAK: Gizarte Hezkuntza

KREDITUAK: 4,5. ENBORREZKO IRAKASGAIA

SAILA: HEZKUNTZAREN TEORIA ETA HISTORIA

## 1. Sarrera

GIZARTE eta KULTUR ANIMAZIORAKO PROGRAMAK I izeneko irakasgaiak, Gizarte Hezkuntzako ikasleen prestakuntzari begira osatu da. Gizarte Hezkuntzako Euskal adarreko taldearen programa 4.5 kreditutakoa da. Irakasgai honek Programak I eta II ikasgaiak enbor bereko bi adar biltzen ditu. Baina, Programak II irakasgaiak Alberdi praktikoa jorratzen duen bitartean, gureak gizarte-hezkuntza mundura hurbildu nahi duen ikasle ororen eskura oinarrizko ezagutzak ipintzen ditu.

Irakasgai honen oinarri teorikoa bibliografi zabal batetik jasotzen da. Irakasle Unibertsitate Eskoletako irakasgai honetan Historiaren eta Soziologiaren garantiza azpimarratu nahi dugu. Hezkuntzaren inguruan eraiki diren ezagutza teoriko-praktikoak, gizarte hezkuntzaren bilakaeran izan duen eragina kontutan hartzeko.

Ikasleen jakinminak eta asmoak egingarri bihurtu eta gogoan hartuko ditugu, bereziki partehartzea bultzatzeko helburua. Ikasleen eta irakasleen arteko konpromezuan oinarritu eta klase dinamika egingarria aurkeztu nahi da.

## HELBURU OROKORRAK

1 Ikasleei gizarte hezkuntzaren oinarrizko gaiak harturik, hezkuntza mota honi zuzenduriko ezagutzak agertaraztea.

2. Irakasgai berria denez, historizismoaz baliatuz, azken mende honetan izan den gizarte-hezkuntzaren eboluzioa aztertzea.

3. Hezkuntzaren teorian eta practicaren artekotasuna, hezkuntza iharduera teorikotik, ikasgelara, kalera, auzora, e.a. Nola gauzatzen den aztertzea.

## HELBURU ZEHATZAK

1. Hezkuntza Mugimendu nagusiak eta horien funtzio edo eginkizunak aztertzea.

.Gizarte Hezkuntzaren testuingurua ezagutzea.

2. Ikasleek gela barruko ihardueran, izaera kritiko eta aktibo batez inplikatzea eta partehartzeko bideak bilatzea.

.Gertuko testuinguruaz jabetzea, eguneroko bizimoduan gehien azpimarratzen diren medio eta formak ezagutzeko ahalegina gauzatuz.

.Euskal Herriko historiari gertutasunez erantzun, dagoen material eskasa aztertu eta ezagutzera ematea.

EDUKIAK Gizarte eta Kultur Animazioaren

1go Gaia: Gizarte Hezkuntzari buruz.

I. Hezkuntza eta Hezkuntzaren dimentsioak

II. Hezkuntzari buruzko oinarrizko kontzeptuak

III. Gaur egungo testuingurua ezagutu

2.Gaia: Zergatik sorteen da Gizarte eta Kultur Animazioa?

I. Gizarte eta Kultur Animazioaren jatorria, sorkuntza eta bilakaera

II. Gizarte eta Kultur Animazioaren Definizioa eta Kontzeptua

III. Gizarte eta Kultur Animazioa Estatuan, Euskal Herrian.

IV. GKA Europan.

3. Gaia: Gizarte eta Kultur animazioaren Teoriaren eta Praktikaren arteko arazoak.

4. Gaia: Giza Animatzaile Kulturala

Metodologia

• Banakako eta taldekako dinamika lantzeko espazioak ikasle-gela barruan egingo dira. Ordenagailu gel aeta areto nagusia ere erabiliko ditugu, teknologi berreen erabilera eta ikasleen mugikortasuna eta adierazpena bultzatzeko espazio egokiak direlako. Liburutegian, bereziki aldizkariei zuzenduriko gela bisitatuko dugu, azterketa pedagogikoaren egungo testuingurua eta Euskal Herriko historiari buruzko aldizkari historikoak bertan gordetzen direlako.

Ikasleen ikaskuntza bultzatzeko aukeratu ditugun metodoetatik ikasleen partehartzea bermatuko dituzten aukerei garantiza emango diogu.

1• Oinarri teorikoa aztertzeko Orduña ikasleen gaitasunak frogatu eta landu nahi dira, ikerketari ate bat zabaldu nahi zaiolarik. Ikerketa eta irakurketa honen emaitzak solasaldien eta eztabaiden bitartez, bide sozio-komunikatiboak zabalduz, ebaluatu nahi dira..

2•Eraikuntzaren ikusgegiaz ikasturte honen bidea egin nahi dugu. Bi asmo nagusi aurreikusten direlarik egitasmo honetan: bat, irakasleari protagonismoa kendu eta bi, ikasleen sormena bultzatu.

Plangintza honek eragin ditzazkeen onura nagusienak, ikasleek burutu dezaketen lanaren inguruan pausatzera bagaramatza ere, beste helburuen artetik banakako lanketak eta taldekakoak, ikasleen arteko erlazioak indartzeko eta gelaren aurrean dituzten gaitasun naturalak frogatzeko eta indartzeko bidea egiteko aukera dela pentsatzen dugu..

3• Ikasleen partehartzea bultzatzeko metodologiak ez du ikasgaia aurrera ateratzeko ziurtasunik ematen. Beraien konpromisuan oinarritzen gara, ikasgaia ezagutzeko eta lantzeko. Beraz, bistan da ikasleen aportazioari begira egongo garela, halere autore ezagun baten obrari begira ipiniko gara bakarkako lan bat egiteko.

.

4. EBALUAKETA

Ikasgaia gainditzeko otsaileko edo iraileko azterketara aurkeztu eta gutxienezko emaitzaz gainditu beharko da. Otsaileko azterketara agertzen ez dena EZ AURKEZTUA moduan ebaluatua izando da, eta lehen konbokatoria Irailean izando du.

Azterketaren emaitzari lan monografikoen ebaluazioa gehituko zaio. Beraz, ikasleen ebaluaketa, ikasgelan egindako lanketak eta emaitzaren arteko balorazioan oinarrituko da. 1-etik 100 bitartean ebaluatuko da ikasle bakoitza, azterketari % 60ko garantiza emango zaiolarik. Beraz, azterketara soilik aurkezten direnak bere kaxa landu beharko dituzte eskatuko diren lan monográfico guztiak, Hauek amaierako balorazioaren barruan kontutan hartu nahi badira behintzat. Ikasgaiak ebaluaketa jarraiaren irizpideak jaso nahi ditu.

Oharra: Bide ez presentzialik ez da aurreikusten. Beraz, klaseetara aurkezten ez direnak bere kaxa egin beharko dituzte irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan biltzen diren lan guztiak. Honetarako tutoritzetara azaltzea beharrezkoa izando da.

1-Azterketa: Ikasgaia gainditzeko azterketa egingo da. Klasean landu diren eduki teoriko guztien galdeketa egingo da. Ikasleek jorratu dituzten lanak ere bertan ebaluatuko dira.

2-Lan monografikoak: Ikasturtean zehar gaia lantzen goazen ehinean, lan monografiko txikiak egingo dira. Hauek solasaldietan edo taldeko aurkezpenetan landuko direlarik. Emaitza eta jarrera positibo edo negatibo moduan ebaluatuko da, amaierako ebaluazioan % 40 garrantzia jasoko duelarik.

2.1. Gizarte eta Kultur animaziorako hezkuntza ereduen azterketa gure herrian. Gertutasunez beste hezkuntz eredu baten errealitatea zein den ezagutzeko ahalegina gauzatuko dugu. Auzoan, herrian, edo gure etxeetatik gertu, hezkuntza mota honen garapena zein den eta nolakoa den adierazten digan informazioa jaso eta geureganatu.

2.2. Emango diren bideo emanaldiei buruz klaseko eztabaidetan parte hartu eta iritziak edo hausnarketak idatzi.

2.3. Irakurgai hautatuak. Ikasgelan, banakako eta taldekako iruzkinak osatu, eztabaidatu eta gelaren barruan plazaratu.

EUSKERA

Euskeraren kalitatea hobetzeko proposamena kontutan hartuko da.

Irakaslego Eskolako Euskara Batzordearen arabera, 2002ko proposamenari helduz, hizkuntzaren erabilera zuzenari garantiza emango diogu. Batzordeak hartutako erabakiak gure eginez, ikaslegoari jakinarazten zaie euskerazko adierazpide zuzena hobetsiko dela eta akatsak oso nabarian direnean, bi eguneko epeaz lanak zuzendu eta berridatzi beharko dituela, kasuan-kasuko erabakiak hartuko direlarik.

Ikasleen lanetan eta edozelako jardunetan, euskarazko adierazpidean agertu ohi diren arazoak oso nabarmenak direnean, hutsak zuzentzea eskatuko da. Ulergarritasun eta zehaztasun hutsak gertatzen direnean, testuak itzultzeagatik edo euskarazko adierazpide okerra erabiltzeagatik, ez da lana zuzenduko eta ikasleari bi eguneko epeaeskeiniko zaio lana edo idaztia zuzentzeko

IRAKURGAI eta eginkizun HAUTATUAK

*Arka, A. (2002) “Gizarte pedagogiaren esparru akademiko eta lanbide Arola”, Tantak 28.

*Arrospide, J. (1991) “Gazte taldeen errepresentazio social”, Uztaro 7, 155-179

*Ayestaran,I. (2001)”Globalizazioa eta inperialismoa”, Jakin 122, 31-54

*Casquete,J. (2000) “Liberalismoa eta kultura”, Jakin 122, 31-54.

*Garaigordobil, M. eta Durán, A.(2003) “Gizartearen aldeko jokabidea, garapen emocionala eta sormena bultzatzeko jolasak”, Tantak, 30.

*Gracia, J. (1998)”Pobrezia eta gizarte laguntzaXVII. Mendean, Bizkaian, Uztaro 14, 3-20.

*Trilla, J. (1997) Concepto, discurso y universo de la animación sociocultural, en Trilla, J. Animación sociocultural. Teorías, programas y ámbitos, Barcelona, Ariel.

*Petrus i Rotger, A. (1997) “Animación sociocultural y Estado del Bienestar” en Trilla, J. Animación sociocultural, Teorías, programas y ámbitos, Barcelona, Ariel.

*Medrano K. eta Ohiarzabal, L. (1992) “Kultur elkartasun eta baliokideko hezkuntza” Tantak 8, 7-17.

*Salas, M. (1997) “La figura y la formación del animador sociocultural”, en Trilla, J. Animación sociocultural. Teorías, programas y ámbitos, Barcelona, Ariel.

*Euskal Jai Gaztetxea, bideo emanaldia. 40¨.

BIBLIOGRAFIA

Ander-Egg(1992) Animación y animadores, Madrid, Narcea

Avancini, G. (1987)La pedagogía en el siglo XX, Madrid, Narcea.

Cembranos, F. eta beste, (1994) La ASC: una propuesta metodológica, Madrid, Popular.

Colom, A. J. y otros (2004): Hezkuntzari buruzko Teoria eta Erakunde Garaikideak, Nafarroa, NUP-UPNA

Dávila, P. eta Izagirre, A.: "Hezkuntza política eta alfabetatzea Euskal Herrian" In Hezkuntzari buruzko teoriak eta erakunde garaikideak, Iruña, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 411-438 orr.

Escolano, A. (1985) Historia de la Educación, Madrid, Anaya.

Froude,S. eta Sanchez,M..(1995) Para comprender la ASC, Estella.

García, M. E. (1995) Organizar y planificar en las entidades asociativas, F.A.M.D.I.F.

Garmendia Larrañaga, J. (2004): La enseñanza rural en Guipúzcoa. La labor de la diputación y los ayuntamientos, Bilbo, Euskal Herriko Argitalpen Zerbitzua.

Iztueta P. (2000). Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian, Donostia, Utriusque Vasconiae.

Sarramona, J. (2000): Teoría de la educación, Ariel, Barcelona.
Torrealdai, J.J. (1982) "Euskararen zapalkuntza" in Jakin, 24.
Trilla, J. Animación sociocultural. Teorías, programas y ámbitos. Barcelona, Ariel. Zabaleta, I. (2000) Nazioa eta hezkuntza sistemaren espainiarraren sorrera, Bilbo, UEU